

## EUSKAL NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURAREN SEKTOREETAN IKERTZAILE ETA TEKNOLOGOAK PRESTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2018

### **Helburua**

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak prestakuntza bidean dauden ikertzaileentzako programan 12 bekatarako (doktoratu aurrekoak) deialdia egin du, baita teknologoak prestatzeko programan 10 bekatarako ere.

### **Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:**

Doktoratu aurrekoen laguntzen iraupena urtebetekoa izango da eta, urtetik urtera, gehienez 4 urtez luza daitezke. Teknologoentzako laguntzen iraupena bi urtekoa izango da.

**Doktoratu aurrekoen kontratuen** urteko lansari gordina 18.547 eurokoa izango da lehen eta bigarren urtean, 19.833,38 eurokoa hirugarren urtean eta 24.555,72 eurokoa laugarren urtean. Bestalde, onuradunek 2.000 euroko laguntza osagarria jasoko dute hainbat gastutarako: doktorego matrikula, biltzarretarako asistentzia, egonaldi laburrak, etab.

Teknologoek 13.000 euro gordin jasoko dituzte urtean. Bestalde, onuradunek 1.000 euroko laguntza osagarria jasoko dute hainbat gastutarako: doktorego matrikula, biltzarretarako asistentzia, egonaldi laburrak, etab.

### **Lehentasunezko ikerketa arloak:**

Hautagaiek diru laguntza edozein programatan eska dezakete, eta gehienez 3 proiektu hauta ditzakete.

Hauek dira UPV/EHUk eskainitako proiektuak:

BEKA MOTA	PROIEKTUAREN IZENA	ESKATZEN DIREN TITULUAK	DESTINOKO ZENTROA:
Doktoratu aurrekoak	Hainbat gizentze espezieren haragiaren trazabilitatea, egiazkotasuna eta kalitatea, proteomika eta lipidomikako tekniken bidez	Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua; Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Farmaziako Gradua; Kimikako Gradua	UPV/EHU, Lascaray ikergunea (Gasteiz)
Doktoratu aurrekoak	Itsasoko hondakin balorizazioa	Bioteknologiako Gradua; Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua; Kimikako Gradua; Ingurumen Ingeniaritzako Gradua;	UPV/EHU, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)

		Ingurumen Zientzietako Gradua	
Doktoratu aurrekoak	AGROCOL-Nekazaritza eta industria hondakinen balorizazioa, kolagenoan oinarritutako produktu biodegradagarriak fabrikatzeko	Bioteknologiako Gradua; Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua; Kimikako Gradua; Biokimikako Gradua	UPV/EHU, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)
Teknologoak	Orein haragiaren eta beste ehiza espezie batzuen nutrizio kalitatearen ebaluazioa	Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua; Biologiako Gradua; Kimikako Gradua; Biokimikako Gradua; Farmaziako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Ingeniaritza eta Zientzia Agronomikoko Gradua	UPV/EHU, Lascaray ikergunea (Gasteiz)

### **Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:**

- Europar Batasuneko herritarra izatea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizilekua duen atzerritarra.
- EAEko udalerriren batean erroldatuta egotea 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera gutxienez.
- Deialdiko I. eranskinen zehazten diren titulazioetako bat edukitzea.
- Doktoratu aurreko beketako bat eskuratu nahi izanez gero, doktorego programa batean onartua izateko baldintzak izatea.
- Titulu hori eskuratzeko ikasketak 2013ko ekainean edo beranduago amaitu izana.
- Teknologoentzako laguntzen kasuan, nekazaritza, arrantza eta elikadura gaietan eskumena duen sailarengandik antzeko ezaugarriak dituen beste bat jaso ez izana.
- Zehapen administratiborik edo penalik ez izatea.

### **Eskaerak aurkezteko epea eta modua:**

Hautagaiak berak bete beharko du eskaera II. eranskinen ere duaren arabera, eta **2017ko azaroaren 27 arte** izango du aurkezteko aukera deialdiko laugarren artikuluan zehaztutako bideetako bat erabiliz. **UPV/EHUren erregistro bulegoak ez dira baliozkoak izango deialdi honetako eskaerak aurkezteko.**

### **UPV/EHUko TRAMITEA:**

Behin eskaera erregistratuta, **UPV/EHUn eskainitako proiektuetako bat eskatzen duten** hautagaiak, alta tramitea errazteko laguntza emanez gero, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute PDF formatuan helbide honetara:

- Eskaera egiteko formularioa
- Proiektuen hautaketa justifikatzeko memoria
- Curriculum vitae
- NANaren fotokopia

**Harremanetarako (Eusko Jaurlaritza):**

**Aurrez aurrekoa:**

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza  
Donostia, 1 – 3. solairua.  
01010 - Gasteiz

**Telefono bidez**

Javier Latorre Guinea  
Telefonoa: 945 018251  
Faxa: 945 019701  
Helbide elektronikoa: [j-latorre@euskadi.eus](mailto:j-latorre@euskadi.eus)

**Informazio gehiago:**

[http://www.zuzenean.euskadi.eus/ayuda\\_subvencion/2017/becas-a-personal-investigador-y-tecnologo/s68-contay/eu/](http://www.zuzenean.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2017/becas-a-personal-investigador-y-tecnologo/s68-contay/eu/)